



**GASTEIZKO
UDALAREN
IV. GAZTE
PLANA**

3

Herritartasuna



Herritarren parte-hartzearekin, boluntariotzarekin eta elkartegintzarekin zerikusia duten gazteen errealitateko gaiak lantzen ditu jarduketa-lerro honek. **Bi erronka** handi bereiz ditzakegu:

ERRONKAK

1. Gasteiz gazteen parte-hartzea bultzatzen duen hiri bat eta tokiko administrazio bat izatea.

2. Gazteak Gasteizen eta udalerriko gazte-politiketan eragile aktiboak izatea.

HELBURUAK

Hauek dira **2017-2019** aldirako zehaztu diren **helburuak**:

- 1 Gazteek **beren herritartasun-eskubidea erabiltzea** (hau da, eragiten dieten gai publikoetan parte-hartzea): Gazte Planak lagundu egingo baitie:
 - Dituzten eskubideak ezagutzen, parte hartzen, informazioa eskatzen, kexatzen, ekimena izaten.
 - Parte hartzeko bideak izaten eta erabiltzen, bereziki, Elkargunea, herrian herritartasuna gauzatzeko baliabide pribilegiatua baita.
 - Parte-hartzeko **aukerak hobetzen, zailtasun handiagoak** izan ditzaketen kolektiboek dituzten zailtasunak eta desabantaila-egoerak gaindituz.
 - Parte-hartzeari **erantzun bat ematen**, ekintza zehatzak garatuz edota beren proposamenak abian ez jartzeko arrazoiak emanez.
 - Udaletik kanpoko **ekimenak ezagutzen eta babesten**.
- 2 Erakundeetara gerturatu ez arren udalerrian hainbat esparrutan parte hartzen ari diren **kolektiboekin harremanetan jartzea**, haien ikuspegia ezagutzea eta haiekin harremanetan eta interakzioan jartzeko bideak bilatzea.
- 3 Gazteek herritarren eta beren bizi-kalitatea hobetzen lagunduko duten **parte-hartze sozialeko eta boluntariotzako ekintzak** garatzea.
- 4 Helburu komunak dituzten **gazteen arteko topaketak eta parte-hartze aktiboa sustatzea** (taldeetan, kolektiboetan edo elkarrean), gizarte-sare aktiboa eratu ahal izateko.

Helburu horiek eremu horietan aurrera egitea ahalbidetuko dute, bi ikuspegitik:

- Alde batetik, udalak irekita egon behar du, gazteek beraiei eragiten dieten esparru guztietan benetan eta modu eraginkorrean izan behar luketen parte-hartzearen aurrean.
- Eta, bestetik, berrikuntzaren aldetik indar handia duten herritar aktibo gisa ikusi behar dira gazteak, batez ere, lerro honetan, hau da, gazteen parte-hartzeak eta berrikuntzak Gasteizentzat balio izugarria duen eremu honetan.

Eremu horretan, funtsezko eragilea da **Euskadiko Gazteen Kontseilua**. Hiriko gazteen elkarteak biltzen ditu erakunde horrek, eta Gazteria Zerbitzuarekin elkarlanean ari da urteetan, hasiera batean, gazte-politiken foroen bidez, eta duela hiru urtetik, hitzarmen baten bidez. Hauek dira hitzarmen horren eduki nagusiak: gazteen parte-hartzea erraztea, bai kolektiboetan edo elkarteetan antolatuta daudenena, bai bakoitzak bere aldetik une batean izan dezakeena.

Beste eragile garrantzitsu bat udalaren barneko **Herritarren Parte-hartzerako Zerbitzua** da. Herritarren Parte-hartzerako Planaren bidez, Gazteria Elkargunearekin koordinatuta dago, eta Gasteizko Udalaren gazte-politiken jarraipena eta ebaluazioa egiteaz arduratzen da Elkargunea, hain zuzen. Gazte Planaren (Gazteria Zerbitzu osoa) eta Parte-hartzerako Zerbitzuaren arteko elkarlanak ahalegin guztiak egingo ditu:

- Garatzen diren prozesu parte-hartzaile guztietan, gazteen presentzia bermatzeko, eta
- Gazteen kolektiboan benetan parte hartzeko sortzen diren aukera berrien aurrean, laguntza eta aholkua eskaintzeko.

Egindako **errealitatearen analisiak** argi erakusten digu ohiko bideetatik (parte-hartzeko kontseiluak eta izaera klasikoagoa duen elkartegintza) egiten den parte-hartzea baxua dela eta parekoen artean espazioa eta denbora partekatzearekin lotuta dauden parte hartzeko modu berriak (lonjak, autokudeatutako lokalak) edota egitura iraunkorretan sustraitzen ez diren proiektu, aldarrikapen edo topaketa bereziak garatzen direla. Azkenik, argi ikusten da oraindik ezkutuan jarraitzen dutela sare sozialek Interneten duten indarrak eta gazteek horiek erabiltzeko dituzten modu berriek.

Jarduketa-eremuen arabera sailkatu ditugu ekintzak:

- Udalaren Gazte Planean
- Gazteei eragiten dieten beste udal-politika batzuetan
- Eremu sektorialetan (enplegua, hirigintza, kirola...)
- Gizartean, horixe baita herritartasunaren azken helburua

Ezinbestekoa iruditzen zaigu gazteek une eta egoera zehatzetan duten parte-hartzea ikusgai egitea, modu positiboan. Hau da, gazteen presentzia bermatzea, eta horiek protagonista bilakatzea gure udalerrian.

Beharrezkoa iruditzen zaigu teknologia berriak erabiltzea, gazteen ohiturekin eta erabilerekin bat datozen parte hartzeko modu berriak ahalbidetzeko.

Erronka horiei erantzuteko, askotariko ekintzak planteatu ditugu, parte hartzeko aukerak sustatzera, gazteekin dugun informazioa eta komunikazioa hobetzera, interesguneak hautematera, benetan parte hartzeko espazioak eta aukerak eskaintzera eta gazteekiko ditugun estereotipoak gainditzera bideratuta.

Boluntariotzaren esparruko esku-hartzea Gazteen Argibideetarako Udal Bulegoarekin eta Lankidetzaren Zerbitzuarekin erantzunkidetasunean egiten den lanean oinarritzen da, bai eta boluntario gazteekin lan egiten duten eta horiek zaintzen dituzten hiriko beste eragile batzuek

txertatzean edota Astialdi Foroarekin egiten den elkarlanean ere. Astialdi Foroan daude Aisialdiko Hezkuntzako taldeak, gazte boluntarioen zati handi bat biltzen duten talde horiek, hain zuzen.

Elkarteei eta kolektiboiei eskaintzen zaien laguntzari dagokionez, EGKrekin dugun hitzarmenaz gain, gazteen elkarteei eta kolektiboiei zuzendutako diru-laguntzen deialdia egiten da.

UDALAREN JARDUKETAK

- **Gazteria Zerbitzuak** ildo horretan lan egiten duten ekintzak eta programak garatzen jarraitzen du, besteak beste, Hiretu Hiria (parte-hartzearen inguruko hezkuntza-programa) eta Haziak programa (proiektuak eta parte hartuz lan egiteko moduak lantzen ditu).

Gazteria Elkargunea hiriko herritarren parte-hartzerako sistemaren organo finkoa da, eta parte-hartze horren ordezkaria da Gizarte Kontseiluan. Antolatutako parte-hartzean gazteek duten presentziaren zutabea da, eta Udalaren Gazte Planaren eta berorren ekintzen jarraipena eta ebaluazioa bermatzen ditu, bai eta hirian udalaren edozein sailetatik garatzen diren gainerako gazte-politikena ere. Gazteria eta Parte-hartzerako Zerbitzuei dagokie, elkarlanean, Elkargune hori (elkarte- eta gizarte-mailan) dinamizatzea.

- **Gazteen Argibideetarako Udal Bulegoak, OMIJek**, laguntza garrantzitsua eskaintzen du abian jartzen diren ekintza guztien hedapenean; horrez gain, gazteekin komunikatzeko oinarri-oinarrizko lotura da, batez ere, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzen dituelako, eta hori ezinbesteko alderdia da jarduketa-lerro honetan. Sareko eta Interneteko aukera birtualak aholkularitza pertsonalizatuarekin ere bateratzen ditu, **Gazte Informatzaileen Sarea kudeatzeaz eta dinamizatzeaz gain**.
- **Abian diren beste ekintza batzuk** ere lantzen ari dira udalaren hainbat zerbitzu edo sail, besteak beste, **Herritarren Parte-hartzerako Zerbitzua**; elkartegintzari eta askotariko eremuetan elkarteek duten parte-hartze prozesuei laguntza eskaintzen die zerbitzu horrek. Era berean, hor dago udalaren parte-hartzerako sistema ere, parte hartzeko organoekin, eta gazteek gero eta presentzia eta parte-hartze handiagoak izan ditzakete sistema horretan. **Garapenerako Lankidetzak Zerbitzuak**, berriz, nazioarteko kooperazioaren barnean boluntarioria sustatzeko jarduketa-lerroak proposatzen ditu.

Gizarte Politiken Sailak Gazte Planaren lerro honi laguntzen dio boluntarioria sustatuz eta parte-hartzea bultzatzeko programak landuz. Ildo horretan, azpimarratzekoak dira honako hauek: **ESKUBIDEEN BATZORDEEK** eskubideak eta sormenarekin eta artearekin lotutako diziplinak batzen dituzten jarduerak garatzen dituzte, eta 18 urte arteko neskei eta mutili zuzentzen zaizkie; **HIRIKOAK** DBHko bigarren mailako neskei eta mutili zuzendutako jarduera da. Bertan parte hartzen ikasteko aukerak sortzen dira eginkizun horretan arduradunaren esparruak sortzen, horrela hiriarekiko eta bere buruarekiko erantzukizuna duten pertsonak prestatzen. Eta **HAURREK ETA NERABEEK PARTE HARTZEKO FOROA** 14 urte arteko neskei eta mutili zuzendutako jarduera da; gazteen talde finkoak eta iraunkorrak biltzen dira, beren iritziak azaltzeko eta dituzten asmoak edo nahiak guztien artean aztertzeko (hiriko eragile aktibo eta arduratsu diren heinean); Kale Heziketako Programak lantzen dituen ekintzen bidez (12 laino..) eta dagoeneko abian diren beste ekintza batzuen bidez garatzen da jarduera.

Gazte Plan honetan jasotzen diren adierazleek helburu horien aurrerapena ezagutzen laguntzen dute, eta politika publikoetan gazteen parte-hartzea sustatzeko udala egiten ari den ahalegina neurtzen saiatzen dira.

ERRONKAK

1. Gasteiz gazteen parte-hartzea bultzatzen duen hiri bat eta tokiko administrazio bat izatea.
2. Gazteak Gasteizen eta udalerriko gazte-politikan eragile aktiboak izatea.

HELBURUAK

- 1 Gazteek beren herritartasun-eskubidea gehiago erabiltzea (hau da, eragiten dieten gai publikoetan parte-hartzea).
- 2 Erakundeetara gerturatu ez arren gai askotan parte hartzen ari diren kolektiboen ikuspegia ezagutzea.
- 3 Gazteek herritarren eta beren bizi-kalitatea hobetzen lagunduko duten parte-hartze sozialeko eta boluntariotzako ekintzak garatzea.
- 4 Helburu komunak dituzten gazteen arteko topaketak eta parte-hartze aktiboa sustatzea (taldeetan, kolektiboetan edo elkarteetan), gizarte-sare aktiboa eratu ahal izateko.

EKINTZAK

L.3-1 GAZTELAB, GIZARTE-BERRIKUNTZARAKO GAZTEEN LABORATEGIA

L.3-2 GAZTEEK UDALEKO EKIPAMENDUAK ERABILTZEA

L.3-3 GAZTEEN PARTE-HARTZEARI BURUZKO AZTERKETA

L.3-4 "MURGIL ZAITEZ BOLUNTARIOTZAN" PROIEKTUA

L.3-5 EUROPAKO BOLUNTARIOTZA PROGRAMA

L.3-6 HEGOALDEKO HERRIALDEETAKO GAZTEEN ETA GASTEIZKOEN ARTEKO TRUKEAK

L.3-7 GAZTEEN PARTE-HARTZEA GAZTE-LOKALETAN

L.3-8 GASTEIZKO AISIALDIKO ERAGILEEN ETA BALIABIDEEN DIAGNOSTIKOA ETA MAPA

L.3-9 AISIALDI HEZITZAILEKO JARDUNBIDE EGOKIEI BURUZKO GIDA

L.3-10 RTEETAN ETA KOLEKTIBOETAN EUSKARA TXERTATZEKO

L3.1 EKINTZA

Gaztelab, gizarte-berrikuntzarako gazteen laborategia

GOBERNAMENDU-LABORATEGIA:

Eztabaidarako, berrikuntzarako eta gazte-politiken esparru orotan proposamenak eraikitzeko gazteek duten gunea.

Elkargunearen ekimenez egingo da deialdia, baina gazte talde batek ere egin dezake, edozein eremutan diziplinartekotasunean oinarrituta arazo zehatz batzuei irtenbidea bilatuz egoeraren bat aurrera eramateko edo aldatzeko interesa badute.

Parte-hartzearen emaitza Gazteria Elkargunean aurkeztuko da, eta, hala behar izanez gero, baita Udaltzako Informazio Batzordean ere.

Administrazioak eskainiko ditu horretarako baliabideak: lekua, tresnak, informazioa, proposamen-bideak, etab.

Ekintza horretan txertatuko dira, ahal den neurrian, gazteen parte-hartzearekin lotuta unean-unean sor daitezkeen beste ekintza batzuk: world-kafea, batzar irekiak Elkargunearekin, gazteei, teknologiei eta gobernu irekiari buruzko topaketak, Gaztenpatia foroaren hedapena, eta Hiretu Hiria programan sortutako proposamenak, besteak beste.

Arduraduna: Gazteria Zerbitzua

Erantzunkideak: Herritarren Parte-hartzerako Zerbitzua, Euskadiko Gazteriaren Kontseilua eta Garapenerako Lankidetzaren Zerbitzua

	2017	2018	2019
GAZTE PLANAREN AURREKONTUA	7.500 €	7.500 €	7.500 €
BESTE SAILEN AURREKONTUA			
AURREKONTUA GUZTIRA	7.500 €	7.500 €	7.500 €

L3.2 EKINTZA

Gazteek udaleko ekipamenduak erabiltzea

Esperientzia pilotu bat da. Gazteei udalaren lokal bat (edo lokalak) eskainiko zaie, elkartu eta taldean hainbat jarduera garatzeko: sortzeko, parte hartzeko gogoia duten gazteak biltzeko, sare sozialetan ohikoak diren gazteak elkartzeko, Gazte Labeko topaketak egiteko, bai eta gazteak elkartzeko gune bat eskatzen duten Gazte Planaren ekintzak garatzeko ere.

Ireki eta itxi beharrik ez dagoen udalaren lokalen bat erabiliko da, esperientzia pilotu gisa, eta autokudeaketarako formulak bilatuko dira.

Arduraduna: Gazteria Zerbitzua

Erantzunkideak: Lokala edo lokalak kudeatzen dituen saila

2017	2018	2019
GAZTE PLANAREN AURREKONTUA		
BESTE SAILEN AURREKONTUA		
AURREKONTUA GUZTIRA		

L3.3 EKINTZA

Gazteen parte-hartzeari buruzko azterketa

Parte-hartzearen errealitatearen azterketa eguneratua egingo da, Gazte Planeko galdeketak oinarri hartuta eta beste estamentu batzuen laguntzarekin: Ikerketa Bulegoa, Eusko Jaurlaritzaren Behatokia...

Gazteen parte-hartzeari buruzko datu kuantitatiboak eta kualitatiboak emango dira 2018-2019rako enplegu-plan bati lotuta.

Arduraduna: Gazteria Zerbitzua

Erantzunkideak: Behatokia eta Ikerketa Bulegoa

	2018	
GAZTE PLANAREN AURREKONTUA		
BESTE SAILEN AURREKONTUA		
AURREKONTUA GUZTIRA		



Udal-baliabideak (giza baliabideak eta baliabide teknikoak, udalaren instalazioak eta bitartekoak...)

L3.4 EKINTZA

“Murgil zaitez boluntariorlan” proiektua

Boluntariorlanarekin hasierako harremana izateko aukera emango du, boluntariorlaneko hiru edo lau esperientziatan murgilduz urtebetean. Proiektuan parte hartu nahi dutenen zerrendan emango dute izena gazteek, eta hainbat erakunderekin harremanetan jarriko da Gazte Plana, boluntariorlanaren errealitatearekin lehenengo kontaktu bat izan dezaten bermatu ahal izateko. Urtean zehar, gazte bakoitzak hiru edo lau esperientziatan parte hartuko du.

Arduraduna: Gazteria Zerbitzua

Erantzunkideak: Batekin eta Saregune, Garapenerako Lankidetzak Zerbitzua

	2017	2018	2019
GAZTE PLANAREN AURREKONTUA			
	2.500 €	3.500 €	3.500 €
BESTE SAILEN AURREKONTUA			
AURREKONTUA GUZTIRA			
	2.500 €	3.500 €	3.500 €

L3.5 EKINTZA

Europako boluntariorlan programa

Europako Boluntariorlan parte hartu nahi duten gazteei laguntza eskainiko zaie. Boluntariorlan parte hartu nahi duten gazteak harremanetan jarriko dira boluntarioak behar dituzten erakundeekin; horrela, Araban gaur egun ez dagoen aholkularitza eta laguntza berreskuratu nahi dira. 2017an kontaktuak egingo dira Eusko jaurlariorlanarekin, ikusteko zeintzuk diren aukerak 2018an zerbitzu hori martxan jarri ahal izateko.

Arduraduna: Gazteria Zerbitzua

Erantzunkideak: Batekin y Saregune

	2018	2019
GAZTE PLANAREN AURREKONTUA		
BESTE SAILEN AURREKONTUA		
AURREKONTUA GUZTIRA		

L3.6 EKINTZA

Hegoaldeko herrialdeetako eta Gasteizko gazteen arteko trukea

Garatzen ari diren garapenerako lankidetzeta-proiektuen esparruan egingo dira truke horiek, gazteen parte-hartzea kontuan hartzen duten proiektuen esparruan, hain zuzen.

Garapenerako Zerbitzuak emango du jarduera hori xede duten proiektuei buruzko informazio zehatza, urtero, garapenerako proiektuei dagokien deialdia ebatzi ondoren, eta hiru urtean behin, gutxi gorabehera, hainbat urtetarako garapenerako lankidetzeta-proiektuei dagokien deialdia ebatzi ondoren.

Arduraduna: Garapenerako Lankidetzeta Zerbitzua

Erantzunkideak: Gazteria Zerbitzua

2019

GAZTE PLANAREN AURREKONTUA



BESTE SAILEN AURREKONTUA

AURREKONTUA GUZTIRA



L3.7 EKINTZA

Gazteen parte-hartzea gazte-lokaletan

Gazalbide auzoan landuko den esperientzia pilotua da. Foro edo eztabaidarako mahai bat osatu nahi da, gazte-lokalen errealitatea aztertzeko, eta barruan nahiz auzoan parte hartzeko aukerei buruz edota errealitate horri eragiten dieten beste gai batzuei buruz eztabaidatzeko.

Arduradunak: Gazteria Zerbitzua eta Euskadiko Gazteriaren Kontseilua

2017

GAZTE PLANAREN AURREKONTUA



BESTE SAILEN AURREKONTUA

AURREKONTUA GUZTIRA



Udal-baliabideak (giza baliabideak eta baliabide teknikoak, udalaren instalazioak eta bitartekoak...)

L3.8 EKINTZA

Gasteizko aisialdiko eragileen eta baliabideen diagnostikoa eta mapa

Une horretan aisialdian hezkuntzak duen egoera eta arazo garrantzitsuenak (indarguneak eta ahultasunak...) islatzen dituen diagnostiko bat egingo da, eta errealitate horren aurrean hirian dauden eragileak eta baliabideak jasotzen dituen mapa bat ere egingo da.

2017-2018 ikasturterako enplegurako plan baten bidez egingo da, Astialdi Foroaren laguntzarekin.

Arduraduna: Gazteria Zerbitzua

Erantzunkideak: Astialdi Foroa eta Euskadiko Gazteriaren Kontseilua

		
GAZTE PLANAREN AURREKONTUA		
		
BESTE SAILEN AURREKONTUA		
AURREKONTUA GUZTIRA		
		

L3.9 EKINTZA

Aisialdi hezitzaileko jardunbide egokiei buruzko gida

Aisialdi hezitzaileko jardunbide egokien gida bat egingo da. Tokiko nahiz ingurune hurbiletako adibideak jasoko ditu, eta egiten duten lanari buruzko gogoeta egitera eta partekatzerara animatuko ditu taldeak, beren jarduerak hobetzeko.

luz egindako diagnostikoan oinarrituta egingo da, zeharkakotasunaren lerroko Gasteiz Gaztea jardunbide egokiei buruzko jardunaldiarekin batera. 2018-2019 ikasturterako enplegurako plan baten bidez egingo da.

Arduraduna: Gazteria Zerbitzua

Erantzunkideak: Astialdi Foroa

		
GAZTE PLANAREN AURREKONTUA		
		
BESTE SAILEN AURREKONTUA		
AURREKONTUA GUZTIRA		
		



Udal-baliabideak (giza baliabideak eta baliabide teknikoak, udalaren instalazioak eta bitartekoak...)

L3.10 EKINTZA

Elkarteetan eta kolektiboetan euskara txertatzeko baliabideak

Astaldi Foroaren esparruan dauden baliabideen berri emango da, eta aisialdiko hezkuntzaren eremuan dauden behar berriak aztertuko dira.

Arduraduna: Euskara Zerbitzua
Erantzunkideak: Gazteria Zerbitzua

2017		2019
GAZTE PLANAREN AURREKONTUA		
		
BESTE SAILEN AURREKONTUA		
AURREKONTUA GUZTIRA		
		



Udal-baliabideak (giza baliabideak eta baliabide teknikoak, udalaren instalazioak eta bitartekoak...)